



2020/11/26KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2020/11/26
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:35

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte . alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskua Perez

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. CRAD FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA.	3
4. OSI DEBAGOIENA OSPITALEAREN ERANTZUNA.	4
5. MOZIOA: MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIEAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA.	6
6. MOZIOA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2020.	7
7. GALDERAK ETA ESKAERAK.	8



Bilkura hasi aurretik, alkateak jakinarazten du presazko gai bat sortu dela deialdia banatu ondoren eta, udalbatzan hortaz aritu aurretik, ordea, gai zerrendan sartu ahal izateko, gai horren urgentziazko izaera bozkatu beharko dela. Sartu nahi den gaia da, %6SKAERA ARAMAIOKO OSASUNEKO LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUARI BURUZ+. Laburbilduz, herritarren artean kezka sorrarazi du, osasunaren lehen mailako arreta zerbitzuaren egoerak. Batetik, gaur egun, Aramaiok ez du egun osoko jardunaldia egiten duten ez mediku, ez erizainik; eta, bestetik, kontsulta gehienak telefonoz egiten direnez, urgentziazko zerbait denean, Arrasateko ospitalera joan beharra sortzen dela. Horren aurrean, kexa azaldu eta konponbidea eskatu nahi da.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, gaiaren URGENTZIA ONETSI eta gaurko bilkurako gai zerrendan sartzea ONARTZEN du.

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.

Alkate-Lehendakariak 2020ko urriaren 29ko ohiko bilkurako eta 2020ko azaroaren presazko ezohiko bilkurako akten gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Jaun Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta, adierazten du, urriaren 29 egindako bilkuran, galdera egin zuela Barrutia etxearen inguruan jarritako eskudelari buruz. Ez dagoela ziur ondo adierazi zuen kokapena eta horrela ondo ulertzen ote den. Berak adierazi nahi zuen tokia da, Ibargoia eta Pedro Ignazio Barrutia kaleen artean jarri zela eta beste bat jartzea komeni zela Pedro Ignazio Barrutiatic errotondara bidean.

Guztiak jakinaren gainean gelditzen dira eta onartzen dute zehaztasun hori kontuan hartzea.

Alkate-Lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak adierazten du, 379 eta 380 dekretuak falta direla deialdiarekin batera bidalitako dokumentuen artean.

Alkateak erantzuten du, dekretu guztiak batera eskaneatzen direnez, makinak akatsa izango zuela eta orri batzuk batera hartuko zituela. Jatorrizko dokumentuak bertan daudenez, dekretuen karpetan, jakinarazten du zeintzuk diren eta zeri buruzkoak. Gaineratzen du, baita ere, falta direnen kopia bidaliko diela guztiei.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (352/20tik 394/20ra).

3. CRAD FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA.

Alkateak gogorarazten du, udalaren xedea dela, eguneko arretarako landa zentroaren bidez, adinekoen gizarte premiei erantzuna ematea, batez ere autonomia fisikoko mugak edota gizarte mugak izan arren beren betiko ingurunean eta gizarte eta familia ingurunean integratuta eta ingurune biei lotuta dauden adinekoen bizi kalitateari erantzunez. Aipatutako eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta mantentzeko Arabako Foru Aldundiarekin izenpetutako azken hitzarmena 2015eko uztailaren 21ekoa da. Halaber, nola beharrezkoa den hitzarmena indarrean egotea etenik gabe eta, 2020ko ekitaldian ere indarrean jarrai dezala onesteko, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 856/2019 Erabakia eman zen.

Oraingoan, aldiz, Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 26ko 222/2020 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren bigarren luzapena onetsi da, udaletako gizarte zerbitzuak behin-behinean ematen jarraitzeko, Aldundiak orain arte kudeatu dituen baldintzetan, 2020ko abenduaren 31ra arte. Luzapena egikaritzeko, ordea, dagokion hitzarmena sinatu beharra dago Arabako Foru Aldundiarekin.



Besterik gabe, aurkezten ditu hitzarmena eta Ongizate Batzordearen proposamena. Hitzarmenak, hitzez hitz, horrela dio:

“ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKEN SAILAREN ETA ARAMAIOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO

Gasteiz, 2020ko azaroaren 10ean

Alde batetik, Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko presidentea, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzan jardunez, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez egindako bere izendapenez baliatuz eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak emandako ahalmenak oinarri.

Beste aldetik, Liemi Altuna Ugarte andrea, Aramaioko Udaleko alkatea.

Aldeak beren karguei dagozkien eskudantziak eta eskumenak direla bide agertzen dira eta dokumentu hau izenpetzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren helburuetako bat da Arabako Lurralde Historikoko kide diren pertsona guztien bizitza autonomia sustatzea eta garatzea, eta helburu hori bere erakunde autonomoaren bidez gauzatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez.

Bigarrena. Adinekoen gizarte premiei erantzutea da Sailarentzat laguntza xede edozeren aurretik, batez ere autonomia fisikoko mugak edota gizarte mugak izan arren beren betiko ingurunean eta gizarte eta familia ingurunean integratuta eta ingurune biei lotuta dauden adinekoen bizi kalitateari erantzutea.

Hirugarrena. Aramaioko Udalak, jakinda zer laguntza mota behar duten pertsona horiek, badaki udalerrian bertan eman behar zaiela irtenbidea, eta horregatik eguneko arretarako landa zentro bat du udalerrian.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez, eta Aramaioko Udala lankidetzan ari dira 2011ko otsailaz geroztik, udalerririk dagoen eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta mantentzeko, eta horretarako izenpetutako azken hitzarmena 2015eko uztailaren 21ekoa da.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 856/2019 Erabakiaren bidez, nola beharrezkoa den hitzarmena indarrean egotea etenik gabe, 2020ko ekitaldian ere indarrean jarrai dezala onetsi da, eta agiri honen bidez gauzatzeko da erabaki hori.

Seigarrena. Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 26ko 222/2020 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren bigarren luzapena onetsi da, udaletako gizarte zerbitzuak behin-behinean ematen jarraitzeko, Aldundiak orain arte kudeatu dituen baldintzetan, 2020ko abenduaren 31ra arte.

Zazpigarrena. Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, besteak beste, erantzukizun publikoa ezartzen du bere printzipio orokorren artean, eta adierazten du herri agintek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioak eta zerbitzuak bermatuko dizkiela heritarrei. Horrez gain, lege horrek erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzaren printzipioak ere ezartzen ditu, bai eta irabazteko xederik gabeko gizarte ekimena ere.

Era berean, zioen azalpenean, zera dio, gizarte zerbitzuak, beren jardunean, egokitu egin behar zaizkiela gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan aurrerantz egin diren pausuek dakartzaten aldaketa sozialei, emakumeak gizarteratzen laguntzen duten jardun eta zerbitzuak sustatuz.

Zortzigarrena. Alde biak ados daude aipatutako lankidetzaren tresna mantentzearekin, programa hau 2020ko ekitaldian zehar garatzeko eta haren jarraipena egiteko bitarteko egokia baita, bai eta hitzarmenean ezarri behar denarekin ere, eta horretarako, dokumentu hau sinatzea erabaki dute, zeina honako klausula hauen pean egongo baita:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Agiri honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak eta Aramaioko Udalak Aramaioko udalerrian dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko eta funtzionarazteko lankidetzaren tresnak berriz ere arautzea. Zentro horretan aldi berean erabil daitezkeen 8 plaza daude.

Bigarrena.- Bi aldeek adostutako eta dokumentu honi erantsitako eranskinarekin bat etorriz, Aramaioko Udalak zentroa eta bertan egiten den jardueraren kudeatzeko konpromisoa hartzen du. Gainera, zentroa behar bezala funtzionarazteko eta haren jarraipena egiteko beharrezkoa den antolamendua ezarriko du udalak, bere erantzukizunpean.

Zerbitzuak genero ikuspegia txertatuko du bere programazioan eta jardueretan, eta, bereziki, hizkuntzaren erabilera ez sexista egingo du, eta emakume eta gizonen duintasun eta eskubide berdinen aldarrikatuko ditu, eta genero rol eta estereotipoei buruzko gogoeta txertatuko du eguneroko jardueretan. Edonola ere, indarreko arauen esparruan jardungo da lan horietan, eta adinekoentzat diren titulartasun publikoko gizarte zerbitzuak kudeatzeko Gizarte Politiken Sailak ezarri dituen funtsezko printzipioak betez.



Hirugarrena.- Egunez adinekoei hainbat zerbitzu emateko erabiliko du Aramaioko Udalak Eguneko Arretarako Landa Zentroa; hain zuzen ere, eguneroko bizitzako eta aisialdiko eta denbora libreko jardueretan laguntzeko hainbat zerbitzu emateko. Hitzematen du, orobat, ez duela obrarik egingo zentroan, eta hango instalazioak, ezta haietarik batzuk ere, ez dituela erabiliko hitzartutakoak besteko erabilera baterako, non eta Gizarte Ongizaterako Erakundearen organo eskudunak ez dion horretarako baimenik ematen aldeztu aurretik.

Laugarrena.- Aramaioko Udalak hitzematen du alde bietan adostutako langile kopurua baliatuko duela hitzarmen honen iraupen aldiaren, Eguneko Arretarako Landa Zentroak behar bezala lan egiteko –hain zuzen ere, arreta jasotzen duten pertsonen kopuruaren arabera, haien profilaren arabera eta emandako zerbitzuen arabera adostutako langile kopurua–. Halaber hitzematen du zentroaren kudeaketa ekonomikoa garatuko duela.

Era berean hitzematen du programak betearaztean edo horietarako berariaz izendatutako langileetan sortzen den zernahi aldaketa jakinaraziko diola Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, eta hark eskatzen dion zernahi agiri emango diola. Dena den, hitzarmen honi zernahi aldaketa egiteko, erakunde sinatzailearen berariazko baimena izan beharko da aldeztu aurretik.

Bosgarrena.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta, oro har, foru administrazioa ez dira sekula izango hitzarmen hau gauzatzearren ondorio izan daitezkeen zernahi lan betebeharren erantzule. Aramaioko Udalak izango du lan harremanak eta langileen lan antolamendua kudeatzeko ardura, bai eta lan horietan beren borondatez dihardutenena ere, halakorik egonez gero.

Seigarrena.- Aramaioko Udalak hitzematen du zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izango dituela, hitzarmen hau izenpetu eta indarrean den bitartean; orobat, dirulaguntzak direla-eta, itzuli dizkiola foru administrazioari itzuli beharrekoak. Halaber, adierazten du ez dagoela indarrean dagoen legediak xedatutako inongo debekuren mende.

Zazpigarrena.- Aramaioko Udalak, Lehen Arretako Gizarte Zerbitzuaren bidez, aurkezten zaizkion eskaerak jasoko ditu, eta egin beharreko administrazio espedientearen instrukzioa egingo du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen batzorde batek balioetsiko ditu eskaerak; baita pertsonak sartzeko lehentasun hurrenkeraz ezarri ere. Gizartegintza Arloko gizarte koordinatzaileak eta gizarte langileak osatuko dute batzorde hori.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hautatuko ditu pertsonak, eta lehentasuna emango dio udalerrian bizi diren pertsonak sartzeari. Hau da, salbu eta salbuespenezko egoerarik badago, puntuazio berdineko egoeretan, lehentasuna emango zaio Aramaion bizi diren pertsonak sartzeari zentroan. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari ordaindu beharko diote unean-unean indarrean dagoen prezio publikoaren araudian ezarritakoaren arabera ezartzen den prezio publikoa, eta, horretarako, dagokion ebazpena emango da.

Zortzigarrena.-Gizarte Politiken Sailak bere gain hartuko du mugikortasun arazoak dituzten erabiltzaileak zentrorantz eramateko ardura, baita zentroa dagoen herrigunean bizi ez diren pertsonak haraxe eramatekoa ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen dauden garraio programen bidez.

Bederatzigarrena.- Zentroa kudeatu eta funtzionazteari dagokion gastuaren aurrekontua HIRUROGEITA BOST MILA EURO (65.000E) da hitzarmen honen indarraldirako, bi erakundeek halaxe kalkulatu dute-eta.

Aurrekontu hori Foru Administrazioak finantzatu dio Aramaioko Udalarik, Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen bidez, erakunde horren 2020ko aurrekontuko partida honen kontura eta zenbateko honen arabera: "Hitzarmenak udalekin. Eguneko Arretarako Landa Zentroak" izeneko 1.80204.0421.250.00.20 partida; BERROGEITA HAMABI MILA EURO (52.000 €) gehienez ere, betiere gastu likidatuaren % 80 gainditu gabe. Aramaioko Udalak gainerakoa finantzatu du, gastu guztira iritsi artekoa.

Hamargarrena.- Gizarte Politiken Sailak bere ekarpena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez ordainduko du, honela:

- Ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 31 baino lehen, hiruhileko bati dagokion zenbatekoaren % 70 ordainduko du, banku transferentzia bidez.
- Hiru hilean behin, eta zerbitzua eman eta hurrengo hiruhilekoaren lehenengo 10 egunetan, bukatutako aldiaren gastu eta diru sarreren likidazioa aurkeztuko du Aramaioko Udalak; baita organo eskudunak (Idazkaritza / Diruzaintza) sinatutako egiaztagiria ere, esanez foru administrazioak hitzarmen honen babesean egindako ordainketak udalak bidali dituen fakturak ordaintzeko izan direla eta hitzarmen honen xede den zerbitzua ematearekin zerikusia dutela.
- Hiru hilean behin eta hiruhileko bakoitza bukatu eta hurrengo hilabetearen 30a baino lehen ordainduko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, banku transferentzia bidez, bukatu den hiruhilekoaren diru zenbatekoa, aurreko idatz zatian jasoriko likidazioaren ondoriozko zenbatekoak kontuan izanda, salbu eta ekitaldiko azken hiruhilekoan, hitzarmenaren azken likidazioa egiten denean ateratzen den zenbatekoa erregularizatuko baita.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia eta hura luzatzeko erabaki bakoitza bukatutakoan, betiere hurrengo ekitaldiko urtarilaren 12a baino lehen, Aramaioko Udalak hauexek aurkeztu behar ditu:

- Egin dituen ekintzei buruzko memoria bat eta urteko ebaluazioa, zer jarduerak egin dituen eta zer emaitza lortu duen adieraziz.
- Berariaz zehaztu beharko ditu gizon eta emakumeen arteko berdintasunari begira gauzatuak diren ekintzak, datuak sexuaren arabera xehatuz.
- Gastuen eta diru sarreren zerrenda xehatua, eta haien frogagiriak, are zerbitzuok finantzatzeko jasotako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk ere, zenbatekoa eta nork eman dituen adieraziz.

Hamabigarrena.- Gorabehera gerora agertu edo aurreikusitako gabeengatik aurrekontuan gertatutako urruntzeak baloratu, konpondu edo ebazteko, Aramaioko Udalak aurrekontuaren itxiera aurreikuspen bat aurkeztu beharko dio Gizarte Politiken Sailari, hitzarmen hau indarrean dagoen ekitaldi bakoitzeko urriaren 1a baino lehen.



Aurrekontua gorantz urruntzen bada, Gizarte Politiken Sailak alde zuzenetik eta berariaz baimena eman beharko du hura gauzatzeko

Hamahirugarrena.- Hitzarmen honetan ezarritako klausulak interpretatzeko eta beraren xedea den programa balioesteko eta haren jarraipena egiteko, Batzorde Tekniko Paritario bat eratuko da. Kide hauek osatuko dute:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak izendatutako pertsona bat, hitzarmenaren jarraipen teknikoa egingo duena.
- Aramaioko Udalak izendatutako pertsona bat.

Batzorde horrek urtean behin behintzat egingo du bilera, eta han aztertutakoaren txostena egingo du. Batzorde horrek adituen aholkularitza jaso ahal izango du, planteatzen diren gaietan.

Aurretik esandakoa gorabehera, batzordea beharrezkotzat jotzen den guztietan bildu ahal izango da, bai eta alderdi batek eskatuta ere.

Hamalagarrena.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailak berarenak diren jarduerak egiteko erabili ahal izango du zentroa, lehenago Aramaioko Udalarari jakinarazita.

Hamabosgarrena.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunetik izango du indarra eta ondorioak izango ditu 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Hamaseigarrena. - Aramaioko Udalak, hitzarmen honen xede diren eta erabiltzaileekin harreman zuzena duten jarduerak garatzean, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak betetzea ahalbidetuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Normalizazio Prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuan jasotako xedapenekin bat etoriz.

Hamazazpigarrena. - Alde bietan adierazten dute badakitela zer xedatzen duen Gizon eta Emakumeen arteko Egiazko Berdintasunerako Lege Organikoak (3/2007 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legeak (4/2005 Legea), bai eta Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako III. Foru Planak ere (2010ean onetsi zen), eta hitz ematen dute genero ikuspegia integratzeko neurriak ezarriko dituztela, eta, bereziki, sexismoa gabea hizkera erabiliko dutela, eta datuak sexuaren arabera xehekaturik bildu eta aurkeztuko dituztela, eta hitzarmen honen babesaren egiten diren jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren xedea aintzat hartuko dutela.

Hamazortzigarrena. - Bi alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesaren eta datu horien zirkulazio askearen inguruko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra onesten duen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), bai eta une

bakoitzean aplikatu beharreko datuen babesari buruzko gainerako araudia ere, eta konpromisoa hartzen dute araudi horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko hitzarmen honen inguruko pertsona fisikoetatik lortutako datuei dagokienez.

Hemeretzigarrena. Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak eta prozedura, eta horren ondorioak

1. Suntsiarazteko arrazoiak:

- a. Arabako Foru Aldundiaren eta Aramaioko Udalaren arteko akordioa.
- b. Hitzarmenaren ondorio diren betebeharrak ez betetzeagatik.
- c. Hitzarmenaren objektua ezin gauzatea GOFEK teknikoki ezarritako baldintzen arabera, edo gauzaten jarraituz gero interes publikoari kalte larria eragiteko aukera ziurra.
- d. Hitzarmenaren izaeraren ondoriozko beste edozein kausa.

2. Hitzarmena suntsiarazteko prozedura:

- a. Hitzarmena suntsiarazteko erabakia hitzarmena onartu zuen organoak berak hartu beharko du, ofizioz, edo Aramaioko Udalak eskatuta, hala balegokio.
- b. Elkarren arteko akordioaren bidez suntsiaraziko bada, beharrezkoa izango da ez dadin egon Aramaioko Udalarari egotzi ahal zaion beste suntsiarazpen kausarik.
- c. Hitzarmena suntsiarazteko proposamena Arabako Foru Aldundiak berak egin badu, entzun egin beharko zaio Aramaioko Udalarari zer duen esateko, egutegiko hamar eguneko epea emanez horretarako. Udalak ez badu alegaziorik aurkeztzen, adituko da ez dagoela hitzarmena suntsiaraztearen kontra.
- d. Dena dela, Zerbitzu Juridikoaren txostena beharko da alde zuzenetik.

3. Indargabetzearen ondorioak alderdiek baliozko eran hitzartutakoari egokituko zaizkio.

Hogeigarrena.- Aramaioko Udalak hitzarmen duen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaini dion laguntzaren berri emango duela, hitzarmen honi buruzko programen gaineko publizitatea egitean.

Hitzarmen honen objektuarekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta propaganda ekintza guztietan emakumeak eta gizonak, biak, aintzat hartuko dituen hizkera erabiliko da, eta, irudietan, pertsonen sexua gorabehera, duintasunaren aldetik



berdinak direla islatuko dute. Ekintza eta irudi horiek, bestalde, Arabako Foru Aldundiaren oniritzia izan beharko dute aldez aurretik, eta haren irudi korporatiboari buruz hark esandakoa bete beharko da. Era berean, deialdiak egin aurretik adostuko dira ekitaldi publiko zein pribatuak, aurkezpenak, sari-emateak, ekitaldi amaierak eta antzekoak nola eta noiz egin (datak, ordutegiak, zer ekitaldi egin, gonbidatuak eta abar), eta aldundiaren oniritzia izan beharko dute. Hitzarmen honen sinatzaileak izango dira, betiere, eta soilik ekitaldi horietan burua eta modu aktiboan parte hartuko dutenak; AFAREN Protokolo eta Harreman Publikoetarako Zerbitzuak jarriko ditu horretarako arauak.

Hogeitabatgarrena.- Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du, eta administrazioarekiko auzien arloko jurisdikzioari dagokio hartaz arduratzea.

Eta adierazitako guztiarekin adostasuna erakusteko, agiri hau izenpetzen dute bi aletan, idazpuruan jasotako tokian eta egunean.

1. ERANSKINA

Aramaioko udalerriko Eguneko Arretarako Landa Zentroa komunitate zentro integratzaile bat da, prebentzio eta asistentziakoa, eguneroko bizitzako jardueretan laguntzeko eta aisia eta astialdiko hainbat zerbitzu ematen dituen beregintasan maila desberdina izanda familia edo gizarte egitura eta laguntza daukaten eta horri esker beren etxean bizitzea kalitate onargarriaz bizitzen jarraitu dezaketen adineko pertsonentzat.

Zentro hori denbora osoz nahiz partzialez erabili ahal izango da, zerbitzu hartzaileen ezaugarrien eta beharrezan arabera.

Aramaioko Eguneko Arretarako Landa Zentroa udal titulartasuneko zentroa da, eta haren jarraipen teknikorako eta finantzaketarako hitzarmena ezartzen da Arabako Foru Aldundiarekin.

HELBURUAK

Aramaioko Eguneko Arretarako Landa Zentroak ondoko helburu hauek ditu:

- Adineko pertsonentzako arretan gizarteak ardura partekatua bere gain hartzea indartu, laguntza sareei babes eman, horiek bere gain hartzen dituzten kargak liberalizatzea ahalbideratuta, eta era horretan bakarrik bizi diren adineko pertsonen nahiz beraiek zaintzeaz arduratzen direnei lagunduz.
- Adineko pertsonen beren gizarte ingurunean –landa eremuan- jarraitzea bultzatu, behar dituzten zainketak beren komunitatean eskainiz.
- Adineko pertsonen beregintasuna eta beraien integrazioa eta gizarte partaidetza mantentzea sustatu, gaitasun funtzional eta sozialei eta buru jarduerari eusteko prebentzio programak, prestazioak eta zainketa txikiak indartuz, aisiaren erabilera eta gizarte, kirol eta bestelako jardueren garapena direla medio, eta erabiltzaileek zentroen funtzionamenduan parte hartzea indartuz.
- Adinekoentzako elkarbizitzaguneak izan,aldi berean gizatalde horren beharrezan egoerak detektatzeko eta arreta zerbitzu intentsiboagoak behar diren garaia atzeratzeko balio dutenak.
- Zerbitzu hauek eta beste komunitate zerbitzu batzuk garatzen diren biztanle talde txikien arteko komunikazioa ahalbidertu.

ONURADUNAK

1. 65 urte baino gehiago duten pertsonak, Arabako Lurralde Historikoan eroldaturik egon eta bertan bizi izan direnak gutxienez eskaera egunaren aurreko azken urtean, zerbitzu hauek garatzen diren landa herriguneetan edo horietara heltzea dagoen ingurukoetan, beren bizilekuan eta ingurunean bizitzen jarraitzeko laguntza baliabideren bat behar baldin badute. Egoera bereziak baloratu ahalko dira, esate baterako senideen etxeetan txandaka bizi diren adinekoen egoera.

2. Aramaioko Eguneko Arretarako Landa Zentroan ematen den arretaren hartzaileak, lehentasunez, hauek izango dira:

- a) Bakarrik edo adineko beste pertsona batzuekin bizi diren adinekoak, ahultasun egoeran badaude.
- b) Familiako beste kide batzuekin bizi diren adineko pertsonak, beharrezkoa bada familiari laguntzea zaintze, laguntasun eta holako eginkizunetan.
- c) Beregintasan maila desberdina (eguneroko jardueretarako beregintasunetik horietakoren baterako nolabaiteko eragozpenetara) daukaten adineko pertsonak, egoera fisiko edo psikikoaren narriadura handirik ez dutenak.
- d) Beren narriaduragatik edo gizarte bakartzeagatik, gizarte harremanak, integrazioa eta gizarte partaidetza mantendu, hobetu edo handitzeko laguntza eta trebetasun sozialak behar dituzten adineko pertsonak

3. Zerbitzu hauen arretatik kanpo daude mendekotasun maila handia izanda baliabide berezituak eta arreta intentsiboagoak behar dituzten pertsonak, bai eta elkarbizitza zail egiten duten jokabide arazoak dituztenak ere.

ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK

- Lanaldi osoko arreta zerbitzua
- Goizeko arreta zerbitzua



- Arratsaldeko arreta zerbitzua
- Jantokia
- Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua
- Garraio egokituko zerbitzua

PRESTAZIOAK

1. Eman daitezkeen zerbitzuak, zentrozen azpiegituraren arabera eta aipatutako malgutasuna kontuan hartuz, ondoko hauek dira:

a) Erabiltzaileen bizitza kalitatea mantendu eta hobetzeko prestazioak.

- Aisia eta astialdiko jarduerak.
- Adinera egokitutako jarduera fisikoa.
- Higieneko zainketa pertsonalak, bainu geriatrikoa.
- Jantoki zerbitzua.
- Janariak hartzeko laguntza.

b) Beregintasanari eusteko edo berreskuratzeko prestazioak.

- Mendekotasun egoeren prebentzioa.
- Beregintasan pertsonala indartzea.
- Pertsonari laguntzeko gizarte sarearen jarduera helburu duen gizarte eta familia lana.
- Hezkuntza lana, erabiltzaileari beste pertsona batzuekiko mendekotasunik ez izateko baliabide pertsonalak ematera bideratua.
- Hezkuntza lana, pertsonak bere ingurunetik laguntza lortzeko eta, ahal duen neurrian, mendekotasun baino gehiago elkarrekikotasun harremanak egiteko trebetasunez hornitzera bideratua.

c) Gizarte integrazioa eta komunitatearen baliabideen erabilera errazteko prestazioak.

- Bere erreferentziako komunitatean dauden jarduera, baliabide eta taldeetan integratzea.
- Elkarrekiko laguntza eta bizikidetzeta.

d) Zentroaren inguruko guneetan bizi diren edo, bertan bizi izanik, beren egoera fisikoagatik iristeko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzea.

PERTSONAK ONARTZEKO PROTOKOLOA

Baliabide honetan pertsonak onartzeko arau izango da ondoko bi dekretuetan xedatutakoa: Diputatuen Kontseiluaren 45/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 8koa, onesten duena mendekotasun egoera onartuta ez duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Sarera sartzeko eta lekuz aldatzeko erregimena arautzen duen arautegia (pertsona horiek sarearen erabiltzaileak izan behar dute); eta Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendekotasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

BI ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA BIDERATZEA

Eskatzaileari bere bizilekuagatik dagokion oinarriko gizarte zerbitzuak egingo du espedientearen izapidetzea, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 8ko 45/2007 Foru Dekretuan eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuan azaldutakoaren arabera. Zerbitzu horrek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloari helaraziko dio espediente eta bertan egingo da haren balioespena, jasoko da aktan eta egingo da ebazpen proposamena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileari aurkezteko.

Oinarriko Gizarte Zerbitzuak informazioa jasotzen du eta Batzordearen akta nahiz ebazpena telematika bidez eskuratzeko bidea du, pertsona bakoitzaren sarrera, baja edo aldaketa prestatzeko.

Maila teknikoan, aldizkako koordinazioa ezartzen da Oinarriko Gizarte Zerbitzuaren eta Gizartegintza Arloan baliabide honen jarraipena egiteko ardura duen teknikariaren artean."

Bestalde, Ongizate Batzordearen proposamenak horrela dio:

Lehenena.- Sinatzea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aramaioko Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena, eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta mantentzeko.



Bigarrena.- Eskuordetzea Lierni Altuna Ugarte alkatea, hitzarmena sinatzeko.+

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ongizate Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. DEBAGOIENAKO ESI - OSPITALEAREN ERANTZUNA.

Alkateak gogorarazten du, aurreko ohiko bilkuran Udalbatzak erabaki zuela, besteen artean, Aramaioko osasun zentroaren inguruko eskaera egitea bai Osasun Sailari, bai Debagoienako ESLari. Horren ondoren, Debagoienako ESik erantzuna helarazi dio Aramaioko Udalari. Erantzun hori ikusita, Ongizate Batzordeak ondorengo erantzun proposamena egiten dio Udalbatzari:

“Jaun hori,

Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu horren azkar erantzutearren. Zoritxarrez ez da hain ohikoa eta beraz eskertzen da.

Guk ezinbestekoa ikusten dugu zuek eta Udalaren arteko komunikazio zuzena eta garbia izatea; alde batetik, gurea bezalako herri batean herritarrek Udala dutelako erreferentzia nagusi bakarra eta edozein aldaketa edo arazoren artean guregana jotzen dutelako eta beste alde batetik desinformazioak ezinegona areagotzea besterik ez du ekartzen.

Horregatik eskertzen dugu hartu duzuen konpromisoa zentzu horretan eta gu lagun izango gara bide horretan.

Momentu honetan mediku titularrak bueltatu da eta arazo nagusia desagertu da. Baina garbi daukagu, orain arte horrela dela ikusi dugulako, mediku hori joaten bada edo berriro baja hartzen baldin badu arazo berdinarekin aurkituko garela.

Hori dela eta, egoera aurreikusi daitekeenez, gure eskaera izango litzateke horrelakorik ez gertatzeko bideak zeintzuk diren aztertzea, Osakidetzarekin horrelako gauzak aztertzea eta denon artean ekiditea gurea bezalako udalerriak zerbitzu gabe geratu edo murrizketak jasatea osasun zerbitzuan.

Arazoa antzematen da estrukturala dela, beraz zentzu honetan gure elkarlan osoa eskaintzen dizuegu. Eta laguntzeko prest gaude gure esku dagoen guztian.

Komunikazio zuzena eta garbia izateko bi aldeon konpromezuekin; eta zuen ardurapean dagoen Aramaioko osasun zerbitzuaren kalitatea bermatzeko elkarlana eskainiz agurtzen gara.

Ez dira garai errazak, eta badakigu ahal duzuen hobe egiten ari zaretela tokian toki, baliabide gero eta murriztagoekin gainera, beraz idatzi edo erantzun hau aprobetxatu nahi dugu gure esker onenak emateko eta animo guztiak!”

Udalbatzak, aho batez, proposatutako erantzuna ONETSI ETA BERE EGIN DU.

5. MOZIOA: MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIEAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA.

Alkateak aurkezten du Sahara Euskadi Mugimenduak eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak Aramaioko udalari helarazitako dokumentua. Testuak, hitzez hitz, horrela dio:

“MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrek erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak haresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Gertakari horien aurrean Aramaioko Udalak, Sahara Euskadi Mugimendurekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- BERRESTEN DUGU zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkari Fronte Polisarioaren borrokari.
- Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzukizuna.



- MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela ESKATZEN DIEGU; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela,.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIEGU; izan ere, Lurralde Ez-autonomia da, Marokok legez kanpo okupatua, NBeren agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIEGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketa eta Saharako biztanleria zibilarren babesean parte aktiboa izanik
- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrok.”

Besterik gabe, bozketa deitu eta Udalbatzak, aho batez, proposatutako mozioa ONETSI ETA BERE EGIN DU.

6. MOZIOA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2020.

Alkateak gogorarazten du datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna 2020 ospatuko dela. Horren inguruan aurkezten du, EUDEL-en adostutako testua. Testu horrek, hitzez hitz, horrela dio:

“2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara, aurrerabide

Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.

Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztupoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrezanean euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.



Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ezbairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.

Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.

Euskaraz garelako munduko herritar.

Euskara aurrerabidea delako.”

Besterik gabe, Bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, EUDLEk proposatutako 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta adierazten du, kiroldegiko rokodromoaren aldean, hutsik dagoen paretan (hirubidera doan aldean), ea zergatik ez den dekorazio graffiti bat egiten, artistiko horietako bat. Proposamen bat dela. Adibidez, lehiaketa baten bidez, gaia, egiteko modua, hartu beharreko erabakiak, eta abarrak aztertu beharko direla, baina proposamen bat dela.

Guztiei ideia ona iruditu zaie. Hala ere, alkateak erantzuten du, Foru Planaren obrak egin behar direla kiroldegian aurretik, teilatua eta Juan Antonioko adierazitako alderdian eragingo dutela. Baina lan horiek amaitu ondoren, proiektu hori aztertzeko eta garatzeko moduan izango dela.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.